

EH BILDUren eta FORU GOBERNUAren arteko AURREKONTU-AKORDIO BATERAKO OINARRIAK

Dokumentu honek EH Bildu Arabaren eta EAJk eta PSEk osatutako Foru Gobernuaren arteko balizko aurrekontu-akordiorako funtsezko oinarriak jasotzen eta planteatzen ditu. Legegintzaldiaren hasieratik adierazi dugun bezala, eta bereziki azken asteotako gure esku-hartze publikoetan, helburua Arabako herritarren benetako beharrei erantzungo dieten aurrekontuak adostea da; EH Bilduren ustez, salbuespenezko egoera baten aurrean gaude, eta aparteko konponbideak behar dira. Datozen urte eta hamarkadetan Arabako gizarteak aurre egin behar dien erronka estrategikoek (klima-aldaketa eta eredu sozioekonomikoaren trantsizioa, gizarte-babeserako eredu berria, gizarte gisa sortzen dugun aberastasunaren banaketa bidezkoa, lurralde-oreka zuzena eta balio solidario, feminista, parte-hartzaile eta euskaltzaleen sustapena, besteak beste) jauzi kualitatiboak eta aldaketa estrategikoak behar dituzte gaur egun Arabako Foru Aldundiak garatzen dituen politika instituzionaletan.

Horregatik, eta EH Bilduk erakutsitako esperientzia instituzionaletik eta jendearekin eta jendearentzat kudeatzeko gaitasunetik abiatuta, eta azken hauteskundeetako emaitzekin berretsita, EH Bildu Arabak lau ardatz nagusitan oinarritzen den aurrekontu-akordioa proposatu du: Aberastasunaren Banaketa, Gizarte Politikak, Erronka Ekosoziala eta Lurralde Oreka. Proposamen horiek jarraian garatuko dira.

Gogorarazi nahi dugu irailaren hasieran ahaldun nagusiarekin izandako lehen bileratik negoziatzeko premiari eutsi diogula, eta, ahal izanez gero, aurrekontua proiektua aurkeztu aurretik adostea nahiko genukeela. Horrek EH Bilduk Foru Gobernuaren aurrekontu proiektuari babes positiboa ematea ekarriko luke, ondorengo ohiko zuzenketa prozesuan, eta aurrekontua sakon aztertu ondoren, hobetu daitezkeen alderdiak hobetzeko proposamen berriak egin ahal izatea alde batera utzi gabe.

Gasteizen, 2023ko azaroaren 2an



AKORDIORAKO AURREKONTU-PROPOSAMENAK

ABERASTASUNAREN BANAKETA

1. Arabako gizartearen geruza handiek bizi duten egoera zaila arintzeko, zenbateko horietan errenta-tarte txikienetarako PFEZaren aparteko kenkaria handitzea:
 - a. 200 €-tik 400 €-ra, 30.000 €-ra arteko errenta-tartean
 - b. Kopuru berean, 0,04ko koefizientearen biderketaren bidez murriztuta, 30.000-35.000 € arteko errentetarako; horrela, 400 euroko kenkaria jaisten joango litzateke, 35.000 euroko tartetik aurrera 0 eurokoa izanik.
2. Bestalde, jakin badakigu pertsona askok ez dutela kenkari hori baliatu orain arte; dela salbuetsita egoteagatik PFEZaren aitortpena egiten ez dutelako, ez direlako eskatzen diren gutxienekoetara iristen, dela errenta txikiak izateagatik eta beste kenkari batzuk edukitzeagatik (adinagatik, etxebizitzagatik...) atxikitako guztia itzultzen zietelako. Kasu honetan, diru-sarrerara eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 200 euroko laguntza 400 €-ra arte igotzea ere proposatzen dugu. Aurtengo ekitaldian izandako arazoen ondorioz, familia-unitate askok ez dute laguntza hori jaso ezjakintasunagatik, eta, beraz, Foru Gobernuak konpromisoa hartuko du laguntza hori jaso dezaketen pertsona guztiei zuzenean jakinarazteko laguntza hori badagoela.

GIZARTE ONGIZATEA

1. Foru Gobernuaren konpromisoa, egoitza publikorik ez duten kuadrilla bakoitzean (Añana, Gorbeialdea eta Mendialdea) hiru egoitza publiko berri sortzeko prozesua abian jartzeko. Konpromiso hori azterketa teknikoetatik haratago joango da, eta gauzatzeak legegintzaldi osoa har dezake.
2. Aurrekontuan partida bat sortzea Arabako Egoitza Pribatuen Hitzarmen Kolektiboa sinatzen duten itunpeko plazen finantzaketa handitzeko; horrela, lan-baldintzak Ariznabarra kudeaketa pribatuko egoitza publikoaren baldintzekin parekatuko dira, eta, modu korrelatiboan, baita egoitza pribatuek plaza itundu bakoitzeko jaso beharreko prezioa ere.
3. LPE-en finantzaketa handitzea (Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoak, hau da, etxeko laguntza pertsonalerako profesionalak kontratatzeak), horien jatorrizko zentzua berreskuratzeko, tresna eraginkor bihurtzeko eta gure inguruko estandar onenekin parekatzeko.

ERRONKA EKOSOZIALA

1. Partida bakarria ezartzea, behar bezain hornitua, energiaren sorkuntza banatua bultzatzeko aldaera guztietan (energia-komunitateak, eraikin publikoetako energia-buruaskitasuna, poligonoen deskarbonizazioa...).
2. EH Bilduk eta Foru Gobernuak elkarrekin lan egiteko konpromiso politikoa, Elgea eta Badaiako egungo parke eolikoak berrindartzeko. Konpromiso horrek helburu hori lortzeko egin beharreko kudeaketak jasoko dituen ibilbide-orri bat adostuko du, bai egungo enpresa jabearen aurrean, bai helburu hori lortzen lagundu dezakeen edo interesekoa izan daitekeen beste edozein entitate edo erakunde publiko edo pribaturen aurrean. Era berean, Foru Gobernuak konpromisoa hartuko du kudeaketa horiek egiteko beharko litzatekeen kreditua gaitzeko (txosten tekniko-juridikoak egitea, kanpoko aholkularitzak...).
3. Arabako EH Bilduk eta Foru Gobernuak elkarrekin lan egiteko konpromiso politikoa, Aldiriko Tren Soziala ezartzeko egungo Miranda-Altsasu trenbidean. Konpromiso horrek ibilbide-orri bat izango du, helburu hori lortzeko Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuekin, ADIF, RENFE eta Eusko Tren enpresa publikoekin eta helburu hori lortzen lagun dezakeen edo interesekoa izan daitekeen beste edozein entitate edo erakunde publiko edo pribaturekin egin beharreko kudeaketak bilduko dituena. Era berean, Foru Gobernuak konpromisoa hartuko du kudeaketa horiek egiteko beharko litzatekeen kreditua gaitzeko (txosten tekniko-juridikoak egitea, kanpoko aholkularitzak...).
4. Arabako Foru Aldundiaren eta Mendialdeko eta Lautadako kuadrillen arteko lankidetzaren hitzarmena, 2024, 2025 eta 2026. ekitaldietan lehen sektorea osorik berritzeko proiektu pilotu bat garatzeko. Plan horrek barne hartuko ditu, besteak beste, ekoizpenaren dibertsifikazioari buruzko ekimenak, trantsizio agroekologikoak, transformazio-zentroak, merkaturatze-zirkuituak eta nekazaritza-hondakinen tratamendua.

LURRALDE-OREKA

1. FOFELen guztizko kontsignazioa ehuneko hogeita hamabost eta laurogeita hamalautik (% 35,94) ehuneko hogeita hamasei eta berrogeita laura (% 36,44) handitzea, Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide erabilgarrietan.
2. Partida bat ezartzea kontzejuek bi urteko epean etorkizuneko plan estrategikoak egin ahal izan ditzaten beren eskumeneko eta lurraldeko eremu guztietan, Abagune Planaren esparruaren barruan.

BASES PARA UN ACUERDO PRESUPUESTARIO

EH BILDU-GOBIERNO FORAL

El presente documento recoge y plantea las bases fundamentales para un posible acuerdo presupuestario entre EH Bildu Araba y el Gobierno Foral conformado por PNV y PSE. Tal y como hemos expresado desde el inicio de la legislatura y específicamente en nuestras intervenciones públicas de las últimas semanas, el objetivo es consensuar unos presupuestos que respondan a las necesidades reales de la ciudadanía alavesa; a juicio de EH Bildu, nos encontramos ante una situación excepcional que requiere soluciones excepcionales. Entendemos que los retos estratégicos (cambio climático y transición del modelo socioeconómico, nuevo modelo de protección social, justo reparto de la riqueza que generamos como sociedad, correcto equilibrio territorial y promoción de valores solidarios, feministas, participativos y euskaltzales, entre otras cuestiones) que debe afrontar la sociedad alavesa en los próximos años y décadas requieren de saltos cualitativos y cambios estratégicos en las políticas institucionales que desarrolla en la actualidad la Diputación Foral de Araba.

Por ello, y desde la experiencia institucional y la capacidad de gestionar junto a la gente y para la gente demostrada por EH Bildu y refrendada con unos excelentes resultados electorales en las últimas elecciones, EH Bildu Araba propone un acuerdo presupuestario que pivota sobre cuatro grandes ejes: Reparto de la Riqueza, Políticas Sociales, Reto Ecosocial y Equilibrio Territorial, propuestas que pasamos a desarrollar a continuación.

Queremos recordar que desde la primera reunión mantenida con el Diputado General a principios de septiembre hemos mantenido la necesidad de negociar y, si fuera posible, acordar el presupuesto antes de la presentación del proyecto presupuestario. Esto supondría el apoyo positivo al proyecto presupuestario del Gobierno Foral por parte de EH Bildu, independientemente de que, durante el posterior proceso habitual de enmiendas, y tras analizar en profundidad el presupuesto, podamos realizar nuevas propuestas para mejorar aquellos aspectos que consideremos mejorables.

Gasteiz, 2 de noviembre de 2023

PROPUESTAS PRESUPUESTARIAS PARA UN ACUERDO

REPARTO DE LA RIQUEZA

1. Con el objetivo de aliviar la complicada situación que viven grandes capas de la sociedad alavesa, aumentar la deducción extraordinaria del IRPF para los tramos más bajos de renta en estas cantidades:
 - a. De 200€ a 400€ en el tramo de renta hasta 30.000€
 - b. En la misma cantidad, minorada por la multiplicación del coeficiente de 0,04, para las rentas entre 30.000-35.000€, de tal forma que iría descendiendo la deducción de 400 euros en ese tramo, hasta 0 euros en las rentas superiores a 35.000 euros.
2. Por otro lado, somos conscientes que hay muchas personas que no se han aprovechado de esta deducción hasta ahora; bien porque no hacen la declaración del IRPF al estar exentas, ya que no llegan a los mínimos exigibles, o bien porque al ser rentas bajas y tener otras deducciones (por edad, vivienda... etc.) ya les devolvían todo lo retenido. En este caso proponemos también aumentar hasta los 400€ la Ayuda de 200 euros para personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio. Ante los problemas habidos en el actual ejercicio, que han supuesto que muchas unidades familiares no hayan optado a dicha ayuda por desconocimiento, el Gobierno foral asumirá el compromiso de comunicar de manera directa la existencia de esta ayuda a todas las personas susceptibles de ser receptoras de esta ayuda.

BIENESTAR SOCIAL

1. Compromiso del Gobierno Foral de poner en marcha el proceso de creación de tres nuevas residencias públicas, una en cada una de las Cuadrillas (Añana, Gorbeialdea y Mendialdea) que carecen de residencia pública. Este compromiso irá más allá de estudios técnicos y su materialización podrá abarcar el conjunto de la legislatura.
2. Creación de una partida en el presupuesto para aumentar la financiación de las plazas concertadas de las residencias privadas que firmen el Convenio Colectivo de Araba, de manera que las condiciones laborales se equiparen a las de la residencia Ariznabarra (residencia pública de gestión privada) y, correlativamente, el precio a percibir las residencias privadas por plaza concertada.
3. Aumento de la financiación de las PEAPs (Prestaciones Económicas para Asistencia Personal, es decir, para la contratación de personas

profesionales para la asistencia personal en el hogar), para recuperar su sentido originario, convertirla en una herramienta eficaz y equiparla a los mejores estándares de nuestro entorno.

RETO ECOSOCIAL

1. Implementar una única partida, suficientemente dotada, para el impulso de la generación distribuida de energía en sus diferentes variantes (comunidades energéticas, autosuficiencia energética en edificios públicos, descarbonización de polígonos...).
2. Compromiso político para trabajar conjuntamente EH Bildu Araba y el Gobierno Foral para implementar la repotenciación de los actuales parques eólicos de Elgea y Badaia. Este compromiso incluirá acordar una hoja de ruta que recoja las diferentes gestiones a realizar para conseguir ese objetivo tanto ante la empresa actualmente propietaria, así como ante cualquier otra institución o ente, público o privado, que pueda colaborar o ser de interés en la consecución de dicho objetivo. Igualmente, el Gobierno Foral asumirá el compromiso de habilitar el crédito que se podría necesitar para la realización de dichas gestiones (elaboración de informes técnico-jurídicos, asesorías externas...).
3. Compromiso político para trabajar conjuntamente EH Bildu Araba y el Gobierno Foral para implementar un Tren Social de Cercanías en el actual corredor ferroviario Miranda-Altsasu. Este compromiso incluirá acordar una hoja de ruta que recoja las diferentes gestiones a realizar para conseguir ese objetivo tanto ante los Gobiernos Español y Vasco, así como con las empresas públicas ADIF, RENFE y Eusko Tren y cualquier otra institución o ente, público o privado, que pueda colaborar o ser de interés en la consecución de dicho objetivo. Igualmente, el Gobierno Foral asumirá el compromiso de habilitar el crédito que se podría necesitar para la realización de dichas gestiones (elaboración de informes técnico-jurídicos, asesorías externas...).
4. Convenio de colaboración entre Diputación Foral de Araba y las Cuadrillas de Mendialdea y Lautada para el desarrollo durante los ejercicios 2024, 2025 y 2026 de un Proyecto Piloto de Renovación Integral del Sector Primario. Dicho plan incluirá, entre otras cuestiones, iniciativas relativas a la diversificación de la producción, transiciones agroecológicas, centros de transformación, circuitos de comercialización y tratamiento de agroresiduos.



Arabako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava

EH Bildu Batzarkide Taldea
Grupo Juntero EH Bildu

ehbildu

EQUILIBRIO TERRITORIAL

1. Aumentar la consignación total del FOFEL del treinta y cinco con noventa y cuatro por ciento (35,94 por ciento) al treinta y seis con cuarenta y cuatro por ciento (36,44 por ciento) de los recursos disponibles correspondientes al Territorio Histórico de Araba.
2. Implementar una partida para que los Concejos que lo deseen puedan elaborar en el plazo de dos años sus propios planes estratégicos de futuro en todos los ámbitos de su competencia y territorio, dentro del marco del Plan Abagune.

Izp.: Eva López de Arroyabe Saez de Maturana

EH Bildu Taldeko Bozeramailea